Udan, orokorrean, debeku da sua erabiltzea edozein oihan eremutan. Honelakoetan baizik ez da sua erabiltzea onartuko:

- Nafarroako iparraldean.
- Nafarroako hegoaldeko kanpin motako ostalaritzako establezimenduetan.

Betiere horretarako prestatutako tokietan, hala nola, barbakoetan, kanpoko bestelako instalazioetan eta komunikazio bideen ondoko atsedenguneetan.

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

Barne Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Interior
Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

# UDA HONETAN ZAINDU BASOA





## IBILALDI BAT EGITERA BAZOAZ

Ez bota lurrera zigarrokinik, pizturik badaude.

Ibilgailu baten barnean baldin bazoaz, ongi itzali zigarrokinak eta ez itzazu leihotik kanpora bota.

Mendian, ez utzi botilarik, kristalezko gauzarik edo sutea eragin edo haizatu dezakeen zaborrik.

Sute bat ikusiz gero, abisatu eta laguntza eskatu. **Horren berri eman 112ari.**

## LANDETXE BATEAN EDO URBANIZAZIO BATEAN BIZI BAZARA

Garbi eduki bideak eta errepideak.

Ahalegindu lorategiek izan ez dezaten ez hostaila gehiegirik ez landaredi idorrik.

Urrundu zure etxebizitzatik su aise har dezaketen gauzak.

Ez erre hostorik egun haizetsuetan ezta lehorteetan ere.

Teilatua eta erretenak garbi eduki, adar eta hostorik gabe.

## NORBERE BURUA BABESTEKO NEURRIAK

Suak ustekabez harrapatzen bazaitu, urrundu kearen kontrako norabidean. Hatsa sudurretik hartu, ahal dela sudurra trapu busti batez estalirik.

Betiere maldan beheiti ihes egin, edo suaren norabidearen perpendikularrean.

Ez saiatu sugarrak gurutzatzen, harrapaturik geldi zaitezke.

Zure arropak su hartzen badu ez lasterkarik egin. Lurrean etzan eta iraulka hasi, eta mantarik baldin baduzu, tapa zaitez harekin.